

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa baten funtsezko elkarteak (edo eragile nagusiak) dira enpresa baten jardueretan zuzenean edo zeharka eragina duten pertsonak, erakundeak edo entitateak. Hauek dira enpresa baten funtzionamendua, estrategia eta arrakasta baldintzatzen dituzten interes-talde nagusiak. Elkarte hauek enpresaren funtzionamenduan eta arrakastan eragin zuzena dute.

Gure enpresaren negozio-eredua kontuan hartuta, aipatu behar da funtsezko elkarten analisia egiterakoan gure negozioa aurrera eramateko ez dagoela hornitzaileen beharrik, guk eskaintzen duguna zerbitzu bezala sailka daitekeelako.

Hori aipatu ondoren, analisiarekin jarraitzeko, gure enpresan negozio-ereduak funtzionatzea ahalbidetzen duten hainbat bazkide-sare aipatu ditzakegu:

Alde batetik programatzailea daukagu. Bera ere, gu bezala, enpresaren sortzaileetako bat da. Honek interneteko orrialdea, sare sozialak eta YouTubeko kanala aktiboki mantentzea du helburu nagusi bezala eta aldian-aldian eguneratzeaz arduratzen da eskaintzen ditugun jardueren inguruko informazioa bezeroei eskaintzeko. Beste alde batetik, web orrialdea eta aplikazioa azken teknologiara eguneratuta edukitzeaz arduratzen da, gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko eta negozio munduan dagoen teknologiarik hoberenera optimizatuta izateko. Bestalde, bere betebeharrak nagusiekin lanpetuta ez dagoenean, lokalera iristen diren bezeroak jasotzeaz arduratzen da.

Ondoren, gizarte eta familia mailako arreta psikologikoko zentro eta espezialistekin harremana dugu. Lan egiten dugun zentroa “Centro de Psicología y Psicoterapia Aina” laguntza indibidualetarako eta talde-terapiatarako eta “ISEP Clínic Vitoria” familia-bitartekaritzetarako. Harreman hori, alde batetik, gure zentroan familia-bitartekaritza eta terapia zerbitzua eskaini ahal izateko eta, bestetik, gure enpresara bezero gehiago erakartzeko burutzen da, izan ere, leku horietan eskaintzen dugun zerbitzua gomendatzen badute, bezero gehiagok gure zerbitzuaren berri izan dezakete. Beste aldetik, harreman hori garrantzi handikoa da izan ere, nitxozko merkatuko bezeroen garapena espezialista batek gainbegiratzea ezinbestekoa da prozesuaren gorabeheren berri izateko.

Gizarte zerbitzuekin ere lan egiten dugu. Hauekin dugun harremana udalak ahalbidetzen du eta horien artean aipatu beharreko elkarte batzuk gurekin harremana dutenak dira: AGLE, IRSE ARABA, ASAFES. Honen arrazoi nagusia da, zerbitzu hauek, gure bezero potentzialen inguruko informazio ezberdina kudeatzen dutela, eta informazio ezberdina kudeatzen dute, eta informazioa dirua da, horrekin batera, elkarlanean jardungo dugu zerbitzua eskaintzen diegun gazte eta familien

garapena gainbegiratzuz gure zentrotik kanpo daudenean, edo gure bezeroen iritzia eta gomendioa jakiteko guk eskainitako zerbitzu eta onuren inguruan.

Ondoren, adin txikikoen zentro ezberdinekin elkarlana egiten dugu. Haiekin egindako harremana Eusko Jaurlaritzarekin dugun harremanari esker gertatzen da eta elkarlana daukagun zentroetako batzuk dira Bideberria zentroa, Sansoheta zentroa eta Aramaioko adingabeentzako zentroa. Jendeari eskaintzeko haiengandik desberdina den errealitate bat bizitzen duten jendearekin erlazionatzeko modu erraz bat, eta, horregatik, errealitate askotako pertsonekin erlazionatzen dira. Egiten ditugun jarduerak tutore, guraso edo begirale guztien baimenarekin eta oniritziarekin burutzen ditugu.

Beste aldetik, garrantzi handia edukiko du garraioko enpresekin daukagun harremana horien artean aipatu behar ditugu Araba autobusak eta Autobuses Cuadra SA programatzen ditugun irteerak era egokian gauzatzeko bidaia egin behar denean eta hori lortzeko hoberena da zerbitzu egoki bat eskaintzea eta aurretik kontratatzea zerbitzu hori.

Garraioko enpresak aipatu ditugun bezala, ere beste enpresa pribatu batzuekin lan egiten dugu puntualki, adibidez Yelmo zinemekin, horren helburua da film maratoiak edo antzerako jarduerak eskaintzea gure bezeroei.

Baita ere garbitzailea R7 garbiketak enpresari kontratatuko diogu. Gure lokalaren garbiketa erregularra mantentzeko eta horrekin batera lokalaren itxura txukuna eta erakargarria dela ziurtatzeko.

Aurretik aipatutako guztiaz gain, aipatu behar dugu Gasteizko hainbat ikastetxeekin Abendaño ikastola, San Martin ikastola, Aranbizkarra Ikas komunitatea adibidez elkarlanean ari garela, eskola orduko edo eskolaren ordutegitik kanpoko irteerak antolatzeko.

Denborarekin, beharrezkoa ikusten badugu, gure zerbitzua eraginkorragoa izateko, beste begirale bat edo batzuk kontratatuko genituzke.

Gure enpresaren bazkide nagusiak aipatu eta aztertu ondoren egin beharrezkoa, gure enpresak behar duen publizitatea izateko, elkarlanak zerrendatzea izango da:

Lehenengo, interneten egiten den publizitatea aipatu behar dugu horren oinarria gehien bat dago gure enpresa daukan Youtubeko kanala eta beste sare sozialak programatzailearen ardura dena non gure irteeren edo ekintza erakargarrien blogak egiten direla. Bideo horietan aipatu behar da adingabekoak ez direla irteten eta irteten diren pertsonak aurretik baimen bat sinatu behar dute ekintzetan parte hartu baino lehen.

Bestalde, gure publizitate-iturri aipagarri bat ospitaleetan, psikologiako elkarte edo espezialistetan eta erditu aurreko ikastaroetako monitoreetan dago. Zentro horietan ditugun publizitatea lparprint enpresak diseinatu eta sortzen ditu gero gu zentro horietako espezialistei ematen dizkiegu. Pertsona horiek gure zerbitzuaren liburuxkak dituzte bere lantokietan bezeroen esku edo beraiek bezeroei emateko, eta, behar bat identifikatuz gero, bezeroak bideratzen dizkigute eskaintzen dugun zerbitzua lagungarria izan daitekeelako pertsona haientzat.

Gure HarreGazte enpresarako publizitatea habian jartzeko; Gasteizko hainbat ikastetxe publikoekin parte hartzen dugu, Aranbizkarrako Ikas Komunitatearekin, El Pilar ikastetxearekin... beste hainbat denda mota ezberdinekin; hala nola, Auzoetako erosketa denda txikiak (Gasteizko auzoetako arraindegia, harategi edo okindegiak adibidez) joskintza-denda... Hor eskaintzen dugun publizitatea ere lparprint enpresaren esku dago azkenean enpresa berdinen esku jartzea gure ustez emaitza hobeagoak emango digu bi enpresa desberdinen eskutan jartzearekin konparatuz. Gasteizko auzo guztietako gizarte etxeekin eta Santiagoko eta Txagorritxuko ospitalearekin elkartu gara. Hauek gure enpresaren beharra duten familiei zein gazteei ezagutarazteko laguntzen gaituzte gure triptikoak eskuragarri izaten.

Publizitatea non daukagun adierazi ondoren gure publizitatearen onurak aztertu behar ditugu.

Ospitaletan, Gizarte etxeetan eta erditu aurreko ikastaroetan eskuragarri dugun publizitatea zuzenean ematen zaie bezero potentzialei espezialistek behar bat detektatzen dutenean. Espezialistek erakusten duten gertutasunaren ondorioz bezero ugari etortzen dira eta gutxienez hilabete bateko harpidetza egiten dute. Ondorioz, esan ahal da publizitate hau enpresarentzat onura handia daukala espezialistengana erakusten duten konfiantzagatik eta hemendik jasotzen ditugula familia kopuru handiena.

Beste aldetik, Eskoletan eskura dagoen publizitatea dago. Hor dagoen publizitatea sarrera nagusiko apalategietan dago ume eta gurasoen esku. Beste aldetik hitzaldi edo ekintzak egiten gaudenean publizitate gehiago eskaintzen dugu. Lankidetzak hori oso onuragarria da gure enpresarentzat; izan ere, seme-alabak dituzten familia gehienak hartzen ditugu bezero honi esker, zeren eta, behin haur batek jarduerak probatzen dituenean, horri buruz hitz egiten baitu lagunekin, eta komunikazio hori familia gehiago erakartzen ditu frogatzeko gogoarekin.

Denda txikietan eskaintzen dugun publizitateak, lehen azaldu dugun bezala, espezialistek banatzen dutenaren oso antzeko onurak ditu. Horren onura denda horietako jendeak gure bezero posibleekin duen harremanean datza, hurbiltasun horrek eskaintzen dugun zerbitzua probatzeko konfiantza sortzen baitu. Azkenean

gure enpresaren helburua bezeroenganako konfiantzan dauka oinarri nagusietako bat.

Amaitzeko, interneten dagoen publizitatea aztertuko dugu. Publizitate hori gehien bat nerabe eta umeentzat dago bideratuta independentzia baten bila daudenak edo gauza desberdinak frogatu nahi dutenak. Honek enpresarentzat onuragarria da enpresarentzat ahalegin handirik gabe hedatzen delako eta hortik jasotzen dugulako gure gazteen bezeroen gehiengoa ikusten dutena erakargarria dela uste baitute.

